

BIODIBERTSITATEA

Gure gizarteak ezinbesteko ditu izaki bizidunak, eta zenbat eta izaki bizidun mota gehiago izan, are eta hobe da gure bizimodua.

Horrek esan nahi du, nahiz eta arrazoi egoistengatik soilik izan, izaki bizidunen aniztasuna gorde eta mantendu beharra dugula.

Aniztasun hori oso garrantzitsua da gure elikadurarako, sendagaiak egiteko... Jarraian ditugun galderei erantzun:

1- Zein arrazoiengatik da horren garrantzitsua, zure ustez, biodibertsitatea mantentzea?

HABITATA: baldintza berezi batzuetan bizi diren landare eta animalia taldeen eremu jakin bat da. Adibidez, belardi bat habitat bat da.

Habitat jakin bat desagertarazten edo aldatzen badugu -putzu bat esaterako- bertan bizi diren animalia eta landareak desagertuko dira. Ibai batera produktu toxikoak isurtzen baditugu, arrainak hilko dira. Baso bat botatzen badugu, berriz, katagorriak, azeriak, hartzak eta abar desagertuko dira.


2- Gure ibaiertzetan egon al da aldaketarik?

3- Zer gertatu da?

4- Animalia eta landareengan izan al du horrek eraginik?

Animaliak eta landareak elkarrekin bizi dira. Landareek elikagaiak sortzen dituzte. Animalia batzuek landareak dituzte elikagai, animalia batzuek beste animalia batzuk dituzte elikagai, eta beste animalia batzuek, berriz, landareak zein animaliak dituzte elikagai. Horrela osatzen dira katea trofikoak.

5- Azaldu ondorengo eskemaren esanahia.



BIODIBERTSITATEA

- 6- Zer gertatuko litzateke ezkurak gutxituko balira?
- 7- Eta untxi kopurua handituko balitz?

Gizakiaren jarduera askok biodibertsitatea pobretzen dute.

- 8- Jarraian hainbat irudi jarri dizkizugu. Esaiguzu irudietan ageri diren egoerek zein eragin izango duten izaki bizidunengan.



Historian zehar espezie asko desagertu dira. Batzuetan, arrazoi naturalengatik, beste batzuetan, gizakiaren eraginagatik.

- 9- Ba al dakizu Euskal Autonomia Erkidegoan galtzeko arriskuan den animaliarik ba al dagoen?
- 10- Zeintzuk?

Beste batzuk, berriz, oso urrutitik ekarri ditugu eta behar baino gehiago ugaldtu dira hemengoak kaltetuz. Espezie hauei inbaditzaileak deitzen zaie.

- 11- Ezagutzen al duzu EAEn horrelakorik?
- 12- Zeintzuk?
- 13- Zer proposatuko zenuke zuk biodibertsitatea zaintzeko?
- 14- Zer egiteko prest zaude zu?